

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAKO ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko urriaren 19an Pertsonen Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Etxez Etxeko Laguntzako zerbitzua Udalak ongizate arloan duen kontratu garrantzitsu eta garestienetako bat da: 8.637.488,68 eurokoa, hain zuzen ere.

Azken urteetako egoera sozio-ekonomikoaren eraginez, zerbitzu honen eskaeren beherakada somatu da. Izan ere, zerbitzua behar duten erabiltzaile askok nahiago dute era pribatuan pertsona bat kontratatu, Etxez Etxeko Laguntzako zerbitzua baino merkeagoa baita.

Baina zerbitzu pribatuak Etxez Etxeko Laguntzarekin alderatzen baditugu, kalitateari erreparatuz, argi dago Udaleko zerbitzu publikoak erabiltzaileengan zuzenean eragina duten hobekuntzak planteatzen dituela: nahiz eta langileak baja edo oporrak hartu, ordezko bat bidaltzen da etxera; zerbitzu profesionala da; ordutegi finkoa mantentzen da; zerbitzua koordinatuta dago beste baliabide publikoekin, eta abar.

Zerbitzu honek 300 langile baino gehiago ditu; horietako asko 45 urtetik gorako emakumeak dira. Erabiltzaileen aldetik, 2014ko datuak ikusita, 1.535 pertsona artatuak izan ziren 418.486,6 orduetan. Horietatik %45 85 urtetik gorako pertsonak ziren, mendekotasun arazoak zituztenak.

Zerbitzu honen orduen beherakada ikusita, 2013an urtearen hondarretan lehen aldiz onartu eta 2014. urteko apirilean indarrean sartu zen Etxez Etxeko Zerbitzuaren prezio publikoa, hain zuzen ere, zerbitzuaren kostua eta erabiltzaileen koordinketa bereizteko: 18,76 euro/orduko baremopean. Analisi guztiek diote etxez etxeko zerbitzua funtsezkoa dela, nagusiki zerbitzu honek artatzen dituen adinekoen esparruko politiketan; hau da, norberaren etxean bizitzen jarraitzeko estrategia garatzeko politiketan. Estrategia horretan aurrera egiteko hartutako erabaki honek erabiltzaileen ekarpena leuntzea du helburu, honela zerbitzua erakargarriago izan dadin herritarrentzat.

Bestetik, zerbitzuaren erabiltzaile kopurua handitu nahian, adin txikikoen sailarekin lankidetzat egin zen aurreko agintaldian, familia batzuei zerbitzua eskainiz eta behar berezi hauei esker ordu kopurua %4,5ean igo zen.

Nahiz eta 2014an ordu kopurua era iraunkorrean mantendu zen hilabetetik hilabetera, 2015eko orduen joera aztertzen badugu, ordu kopurua beheraka egin du, hilabete batzuetan 2.000 ordu gutxiago kontratatu direlarik. Dagoeneko esan daiteke etxez etxeko laguntzaren orduen joera beheraka doala %5 eta honek eragin zuzena duela langileen egoeran eta zerbitzuaren iraunkortasunean. Batzordean Aitziber San Ramon zinegotzi ordezkariak ez zuen egoera honi aurre

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

egiteko inongo neurriren berri eman, eta horregatik behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari prezio publikoa jaitsi ahal izateko beharrezkoak diren azterketak egin ditzan, etxez etxeko laguntzako zerbitzuaren ordu kopurua mantentzearen.
2. Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari aztertu dezala zein sailetan eta kolektibotara zabaldu daitekeen zerbitzuaren eskaintza, ordu kopurua igotzearen.

Donostian, 2015eko urriaren 23an

Olaia Duarte Lopez
EH BILDU udal taldeko zinegotzia